

Bosgarren murrizketa:

Obrak egiteko murrizketak

Trafikoko operazio berezien egunetan eta ibilgailu asko batera mugitzen direnean trafikoak izaten dituen ezaugarri bereziak direla eta, trafikoaren arintasuna eta bidesegurtasuna hobetze aldera, Trafiko Zuzendaritzak eta eragindako bideen erakunde titularrak obrak eteteko koordinatuko dira VI. eranskinean ezarritakoaren arabera.

Hala ere, VI eranskinean jasotako egun eta orduetan obrak egin behar badira, bidearen erakunde titularrak obra horien berri eman beharko dio Trafiko Zuzendaritzari, behar bezala arrazoituta eta behar besteko aurrerapenez.

VI. ERANSKINA

2026. URTEAN ERREPIDEKO OBRAK ETETEA TRAFIKOAREN EZAUGARRI BEREZIENGATIK.

Ibilgailu ugariaren joan-etorrien ondorioz eta 2026 urterako aurreikusitako trafiko-operazioen ondorioz, Trafiko Zuzendaritzak eta errepideen erakunde titularrak koordinatuko dira hauexek egiteko:

A: Zirkulazio-plataformari eta eragin-eremuari eragiten dieten obrak etetea.

Noiztik		Noiz arte	
Eguna	Ordua	Eguna	Ordua
Martxoaren 18a	15:00	Martxoaren 19a	24:00
Apirilaren 1a	15:00	Apirilaren 2a	24:00
Apirilaren 6a	08:00	Apirilaren 6a	24:00
Ekainaren 27a	15:00	Ekainaren 28a	24:00
Uztailaren 24a	15:00	Uztailaren 25a	24:00
Uztailaren 31	15:00	Abuztuaren 1a	24:00
Abuztuaren 28a	15:00	Abuztuaren 29a	24:00
Urriaren 9a	15:00	Urriaren 10a	24:00
Urriaren 12a	08:00	Urriaren 12a	24:00
Azaroaren 1a	08:00	Azaroaren 1a	24:00



Noiztik		Noiz arte	
Abenduaren 4a	15:00	Abenduaren 6a	24:00
Abenduaren 8a	08:00	Abenduaren 8a	24:00

B: Zirkulazio-plataformari eragiten dioten obrak etetea:

Asteburuetan, ostiraleko 15:00etatik igandeko 24:00ak arte, errepideen erakunde titularrek arrazoi justifikatuengatik berariazko jakinarazpena egiten ez badute.